



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Ezin zaitezkete Jainkoaren eta diruaren morroi izan”

2022ko irailaren 18a
Urteko 25. igandea (C)

Lukas 16, 1-13.

Egun haietan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizon aberats batek etxezain bat zuen, eta hau ondasunak alferrik galtzen ari zitzaiola salatu zioten. «Deitu zion eta esan: “Zer da zutaz entzun dudan hori? Emadazu etxezaintzaren kontu, kargutik bota egiten zaitut eta”. «Honela zioen, orduan, etxezainak bere baitan: “Zer egin behar dut orain, nagusiak kargua kentzen didanez gero? Aitzurrerako ez naiz gauza, eta eskerako lotsa naiz. Badakit zer egin, kargutik botatzen nauten honetan etxean nor hartu izan dezadan”».

«Deitu zituen bere nagusiaren zordunak banan-banan, eta lehenengoari galdetu zion: “Zenbat zor diozu nire nagusiar?” Hark erantzun: “Ehun upel olio”. Etxezainak esan zion: “Hona zure ordain-agiria; agudo, eseri eta idatzi berrogeita hamar”. «Gero, hurrengoari galdetu zion: “Zuk zenbat zor diozu?” Hark erantzun: “Ehun anega gari”. Eta besteak, orduan: “Hona zure ordain-agiria; idatzi laurogei”. «Eta nagusiak txalotu egin zuen etxezain zuzengabe hura, zuhurki jokatu zuelako. Izan ere, mundukoak zuhurrago dira beren arteko arazoetan, argitakoak berenetan baino. «Beraz, hauxe diotsuet nik ere: Irabaz itzazue adiskideak bidegabeko diruaren bidez; horrela, dirua amaitzean, betiko bizilekuetan hartuko zaituzte Jainkoak. «Gauza txikietan fidagarria, handietan ere fidagarri da, eta gauza txikietan zuzengabea, handietan ere zuzengabe. Bidegabeko dirua erabiltzen fidatzekoak izan ez bazarete, nor utzi zuen esku egiazko ondasuna? Zeuena ez duzuen aberastasunarekin fidatzekoak izan ez bazarete, nor eman benetan dagokizuen? «Ez da morroirik bi nagusi zerbitza ditzakeenik; izan ere, bata gorroto izango du eta bestea maite, edota batari men egingo dio eta bestea begitan hartuko. Ezin zaitezkete Jainkoaren eta diruaren morroi izan».

“Gauza txikietan fidagarria, handietan ere fidagarri da, eta gauza txikietan zuzengabea, handietan ere zuzengabe”

DIRUA

Jose Antonio Pagola

Jesusek ezagutu zuen gizartea gurea ez bezalakoa zen oso. Jerusalemgo familia boteretsuek eta Tiberiades inguruko lurjabe handiek soilik metatu zezaketen urrezko eta zilarrezko monetarik. Landa-jendeak doi-doi eskura zezakeen brontzezko edo kobrezko monetaren bat, nolana ere balio eskasekoak. Jende asko dirurik gabe bizi zen, produktuak trukatzera mugatzen zen, bizitze hutseko erregimenari loturik.

Gizarte horretan, maiztasun harrigarri mintzo da Jesus diruaz. Lurrik eta lan finkorik gabe, Profeta ibiltari huts bizi delarik eta Jainkoaren arazoei emanik, erabateko askatasunez hitz egiteko aukera ematen du. Bestalde, pobreekiko maiztasunak eta Jainkoaren zuzentasunarekiko grinak baztertuak defenditzera eragiten diote beti eta estu.

Hizkuntza oso bereziaz mintzo da diruaz. Berez bezala atera zaio esapide hau: «*diru zuzengabea*» edo «*aberastasun zuzengabea*». Itxuraz, ez du ezagutzen «diru garbirik». Jende boteretsu haren aberastasuna zuzengabea da, zeren modu zuzengabean metatua baita eta pobreekin eta gose direnekin partekatu gabe gozatzen baitu hartaz.

Zer egin beharko lukete aberastasun zuzengabe horren jabe direnek? Jesusen hitz bitxiak dakartza Lukasek. Esaldia laburraren laburrak iluna gerta daitekeen arren, haren edukia ezin ahantzizkoa da. «*Nik diotsuet: Irabazi adiskideak diru zuzengabeaz, honen falta izango duzuenean betiko egoitzan har zaitzaten*».

Hau diotse Jesusek aberatsei: «Erabili zeuen aberastasun zuzengabeak pobreei laguntzen; irabazi haien adiskidetasuna zeuen ondasunak haiekin partekatuz. Haiek izango dituzue zeuen adiskide eta, heriotzako orduan dirua ezertako baliozko eta on izango ez duzuenean, haiek onartuko zaituztete Aitaren etxean». Beste hitz batzuek esanik: diru zuzengabea Jainkoaren aurrean «zuritzeko» erarik egokiena haren seme-alaba pobreenekin partekatzea izango duzue.

Jesusen hitzek ez zuten izan harrera onik. Lukasek diosku ezen «*fariseu batzuk zirela gauza hauek entzuten ari zirenak, aberastasun zale batzuk, eta Jesusi burla egiten ziotela*». Ez zuten gogoko hari diruaz hitz egiten entzutea. Legea ezagutu eta leial betetzea bakarrik zuten gogoko. Jainkoak haien bizitza bedeinkatu izanaren seinaleztat zituzten beren aberastasunak.

Tradizio bibliko luzeak baietsia izan arren, aberastasunak bedeinkapen-seinaleztat hartu nahi izate hori ez da ebanjelioaren araberakoa. Ozenki esan beharra da hori gau egun, zeren bai baitira pertsona aberatsak berez bezala pentsatzen dutenak beren ekonomi arrakasta eta beren oparotasuna direla Jainkoak beren bizitza onesten duenaren seinale argiena.

Jesusen jarraitzaileak ezin egin du edozer gauza diruaz: bada zuzengabea den dirua irabazteko ere bat, gastatzeko era bat, gozatzeko era bat, zeren behartsuez ahaztu egiten baita.